

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ARROPAK PERTSONALIZATZEA	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF1033		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Arropak moldatzea eta pertsonalizatzea	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarritzko teknikak (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Arropak moldatzea		60

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator, partzialki, UC1227\_1 MOLDAKETAK EGITEA ETA ARROPAK PERTSONALIZATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB4, LB5, LB6 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, arropen pertsonalizazioko desmuntatze-, mozte-, mihizatze- eta akabera-eragiketen espezifikotasunei dagokienez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ehun eta larruzko arropak pertsonalizatzeko teknikak aplikatzea, beste arropa batzuk lortzeko, estetikari eta jantzigarritasunari kasu eginez.

EI1.1 Ehunezko arropak pertsonalizatzeko teknikarik erabilienak ezagutzea, hala nola brodatzea, margotzea, parpailak jartzea, apaingarriak jartzea, arropak arintzea eta abar, baita horiek modako joeren arabera izaten dituzten aldaketak ere.

EI1.2 Pertsonalizatzeko teknikak zehaztea, hala nola brodatzea, margotzea, parpailak jartzea, apaingarriak jartzea, arropak arintzea eta abar, baita material ezberdinetan dituzten aplikazioak, lotura-, mihizatze-, jostura- edo itsaste-mota eta prozesu bakoitzean erabiltzen diren ekipo edo makinak.

EI1.3 Ehun edo larruzko arropen pertsonalizazioen erakusgai edo katalogoa egitea, aurrez egindako pertsonalizazioen datu eta laginetatik abiatuz, hainbat teknika aplikatuz, estetikari kasu eginez eta moda-joeren arabera.

EI1.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean oinarrituz, ehunezko eta larruzko arropa banaren pertsonalizazioa egitea:

- Pertsonalizazioa egiteko jarduerak ordenatzea, jasotako informazioaren arabera.
- Pertsonalizazio-mota eta eragiketen segida ezagutzea.
- Erabili beharreko baliabide eta materialak identifikatzea.
- Behar diren lanabes, erreminta eta makinak prestatzea.
- Pertsonalizazioa egiteko behar diren eragiketak trebetasunez egitea, teknika egokiak aplikatuz.
- Egindako lanaren kalitatea kontrolatzea.

A2: Transformazio-teknikak aplikatzea arropetan, horiek probatzean egindako marketan oinarrituz.

EI2.1 Probetan egiten diren marka eta seinaleak identifikatzea, zuzen interpretatu eta erabiltzeko.

EI2.2 Azaltzea zein diren moldatu beharreko arropa-zatiak, hura aldatu gabe konpon daitezkeenak.

EI2.3 Azaltzea nola eramaten diren proban egindako markak beharra duten arroparen gainerako osagai simetrikotara (aurrez aurrekoak ala ez), erreminta eta lanabes egokiak erabiliz.

EI2.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean oinarrituz, proban egindako seinaleetatik abiatuz arropa bat itxuraldatzea:

- Seinaleak identifikatzea eta egin beharreko transformazio-mota interpretatzea.
- Hala badagokio, markak osagai simetrikotara eramatea, baliabide eta teknika egokiak erabiliz.
- Behar izanez gero, bigarren proba egiten laguntzea, eta proposamenarekin bat datorrela egiaztatzea.
- Moldaketaren kalitatea egiaztatzea.

##### Edukiak

##### 1. Ehunezko arropa eta osagarrietan pertsonalizazio-teknikak aplikatzea.

- o Ehunezko arropa eta artikulua pertsonalizatzeko joerak.
- o Brodatuak aplikatzea.
- o Margoa aplikatzea.
- o Hainbat material aplikatzea.

- Parpailak, apaingarriak eta bestelako horniak jartzea.
  - Aplikazioen hainbat materialetan duten portaera.
  - Ehunezko arropa edo artikuluak pertsonalizatzeko aplikazioen erakusgaiak.
2. **Larruzko arropetan pertsonalizazio-teknikak aplikatzea.**
- Larruzko arropa eta artikuluak pertsonalizatzeko joerak.
  - Arropak arintzea.
  - Hainbat material aplikatzea.
  - Parpailak, apaingarriak eta bestelako horniak erabiltzea.
  - Aplikazioen hainbat materialetan duten portaera.
  - Tindatzeko pistola. Distira emateko produktuak eta anilinak.
  - Larruzko arropak pertsonalizatzeko aplikazioen erakusgaiak.
3. **Ehun eta larruzko arropa eta osagarriak pertsonalizatzeko, jantzigintza-teknikak aplikatzea.**
- Josturak desegiteko teknikak.
  - Arropak eta materialak prestatzea.
  - Hainbat material mozteko eragiketak.
  - Mihizatze-eragiketak: jostea, itsastea eta abar.
  - Arropen tarteko eta amaierako akaberak egiteko eragiketak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestakuntza-atal hau egiteko, gainditua izan behar du UF1032: Arropak moldatzea.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak